

## Hondartzako aurkituko dituzun pertsona motak

–Beti gorri-gorri jartzen dena. Izugarri gustatzen zaio eguzkitan egotea eta, nahiz eta krema eman, beti jartzen da otarrainxka bat baino gorriago, denbora gehiegi ematen du-eta eguzkipean.

–Neguan kiroldegian egin duen lana erakutsi nahi duena. Ez da geldirik egoten eta, nahiz eta etzanda egoteko irrikan egon, atzera eta aurrera ibiltzen da “gorputz perfektua” erakusten eta bere buruari argazkiak egiten.

–Beti kartetan ibiltzen dena. Irabazten duenean isil-isilik geratzen da; galtzen duenean, ordea, hondartza osoan entzuten dira haren protestak.

–Beti gose (goseak) dagoena. Nahiz eta urruti egon, jatekoa usaintzeko ahalmen berezia du, eta, bokata bat ateratzen duzunean, tximista bat baino azkarrago iristen da zure ondora. Superbotereak ditu!

–Musika altu jartzen duena. Nahiz eta hondartzan jende pila bat egon, berak musika ozen-ozen jartzen du. Besteek jartzen dutenean, ordea, haserretu egiten da berea ezin duelako entzun.

–Surfa maite duena. Olatuak daudenean, ez da uretatik ateratzen; itsasoa bare dagoenean, ordea, triste egoten da itsasoari begira.

–Yoga egiten duena. Nahiz eta etxetik atera aurretik eguneroko yoga-saioa egin, asko gustatzen zaio jendaurrean dakien guztia erakustea.

–Eta, bukatzeko, denetarik eramaten duten talde handiak. Etxean daukaten guztia eramaten dute hondartzara: aulkiak, itzalkina, hozkailua... Iristen direnean, elefante talde batek baino zarata handiagoa egiten dute eta leku pila bat hartzen dute. Nahiz eta horien ondoan egotea dibertigarria izan, deskantsatu nahi baduzu, ez zaitetz horien ondoan jarri!